



## HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN JARRAIBIDEAK CORONAVIRUS 2019-NCOV IZURRITEAREN KUDEAKETARI BURUZ

2019-nCoV koronabirusaren agerraldiari dagokionez, beharrezkoa da, oro har, hezkuntza-komunitateari eta, bereziki, profesionalei, arrisku-egoerak ahal den neurrian prebenitzen eta, aldi berean, guztien eskubideak bermatzen direla zaintzen lagunduko duten jarraibideak proposatzea.

Hezkuntza Saila, bere ardurapeko zerbitzu guztien artean ahalik eta koordinazio handiena lortzen saiatuz, adierazitako helburuak lortzen laguntzen duten erabakiak hartzen ari da.

Hona hemen erabaki horietako batzuk:

- Ikasleekin aurrez aurreko jarduera etetea
- Erabaki horrek ikasleen hezkuntzarako eskubidean ahalik eta eragin txikiena izan dezan, ikastetxeei jarraibideak bidali zaizkie, eta web-orrian kontsultatu ahal izango dira, esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>

Salbuespenezko testuinguru horretan, jarraibide hauek bidali dira Ikuskaritzara, zonako Berritzeguneetara eta Berritzegune Nagusira: IRALE, Ingurugela, CRI, hizkuntza-finkapenerako zentroak eta Sukarrietako ingurumen-hezkuntzako zentroa.

### ORO HAR, HAUEK IZANGO DIRA JARDUKETAK:

- Osasun Sailak emandako jarraibideei jarraituko zaie.
- Ikastetxeei lasaitasuna ematen eta transmititzen saiatuko gara.
- Egoitza bakoitzeko barne-bilerak ondo aireztatutako espazioetan egingo dira, lantaldeko kideen arteko segurtasun-distantziak (metro 1, gutxienez) errespetatu ahal izateko.



- Ez da parte hartuko, eta ez da ekitaldirik edo jardunaldirik antolatuko.
- Komunikazio-ingurune birtualei lehentasuna emango zaie ikastetxeekiko harremanetan.

## HEZKUNTZA IKUSKARITZA:

### 1.- Ikastetxeek egindako kontsultei erantzutea:

**Osasun Sailaren gomendioak** bete beharko ditu, eta azpimarratu beharko du izurrite horrekin lotuta sintomak adierazten ari diren edo COVID 19n positibo eman dutenekin harremanetan egon diren pertsonak beren etxeetan egon behar direla eta osasun-zerbitzuekin harremanetan jarri behar direla, dagozkien jarraibideak eman ditzaten.

Bestalde, ikastetxeetara bidalitako **Hezkuntza Sailburuordetzaren jarraibideekin** edo horietan jasota ez dauden beste batzuekin lotutako gorabeheri dagokienez, lurralde-buruen bidez jakinarazi beharko zaizkio Ikuskaritza Nagusiari, helaraz ditzan eta erabakiak har ditzan. Modu guztietan **saihestu behar da erabakiak banan-banan hartzea, horietan koordinazioa eta koherentzia bermatzeko.**

### 2.- Ikastetxeek egiten duten jardueraren jarraipena ikasleen hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera.

Ikuskari bakoitza bere erreferentziazko ikastetxeekin harremanetan jarriko da, eta honako alderdi hauei buruzko informazioa jasoko du:

- Irakasleak ikastetxean zer ordutegitan ari diren lanean.
- Ikasleen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko erabiltzen ari diren prozedurak edota materialak
- Familiekin eta ikasleekin komunikatzeko prozedura
- Ikasturteko curriculumaren oinarriko alderdiak lantzen direla bermatzeko estrategien planifikazioa.
- Gorabehera garrantzitsuak eta beste ohar batzuk, ikastetxeen proposamenak.

Informazio hori biltzeko, dokumentu honen eranskinean jasotako txantiloia erabiliko da.

### **3.- Informazioa biltzea, beste instantzia batzuetara eramateko:**

Ikuskariak egunero jasoko dute ikastetxeek egoera horri buruz bidaltzen duten informazioa, eta informazio hori jakinaraziko diote dagokion lurralde-buruari.

Ikuskaritza Nagusiak lurralde bakoitzetik datorren informazioaren jarraipena egingo du, eta, horretarako, lurralde-buruak bildutako informazioa helaraziko diote.

### **ZONAKO BERRITZEGUNEAK ETA BERRITZEGUNE NAGUSIA:**

#### **1.- Ikastetxeentzako arreta:**

Berritzeguneko aholkulariek laguntza emango diete ikastetxeei bidalitako Hezkuntzako sailburuordearen martxoaren 13ko jarraibideetan esleitu zaizkien zereginak bete ditzaten.

#### **2.- Lehentasunezko zereginak::**

2.1.- Ikastetxeen eskura jarriko den material didaktikoa prestatzea, haiek hezkuntza-maila guztietako ikasleei helaraz diezaieten.

2.2.- Ikastetxeek ikasleekin eta familiekin erabil ditzaketen plataforma edo ingurune digitalei buruzko aholkularitza eta prestakuntza ematea.

**Ingurune horiek erabiltzen ez dituzten ikastetxeei** Hezkuntza Sailari hori eskatzeko aukera eskaini zaie. Eskaera horiek kudeatzeko arduraduna Xabier Mujika izango da, Berritzegune Nagusiko IKTko aholkularia. Kasu horietan, bereziki, **indartu** egingo da etapako eta IKT-en aholkulariek ikastetxean ematen duten aholkularitza eta prestakuntza telematikoa.

2.3.- Ikasleei agintzen zaizkien hezkuntza-zereginen edo tutoretza-prozesuen jarraipena egiteko estrategiak.

2.4.- Familiekin komunikatzeko bideak ezartzea.

Zonako Berritzegune bakoitzeko zuzendaritza arduratuko da jarduketara horiek ahalik eta modu egokienean eta eraginkorrean garatzeaz.

Oro har, Berritzeguneez 40/2009 Dekretuan agindutako eginkizunak betetzen jarraituko dute, idazki honetan jasotako gomendioak kontuan hartuta.

### **IRALE:**

Hiru egoera bereizten dira:

- **Zentroan kanpoko erakundeek emandako ikastaroak**
- **Kanpoko erakundeek ikastetxetik kanpo emandako ikastaroak**
- **IRALEren egoitzetan emandako ikastaroak.**

Azken horietan, langileek baliabide telematikoaren bidez jarraituko dute prestakuntza-jarduera.

Era berean, kanpoko erakundeek emandako prestakuntzari dagokionez, bide telematikoaren bidez mantentzeko asmoa jakinarazi dute, aurreikusitako programan murrizketarik gerta ez dadin.

### **CRI**

Gomendatzen da ikasleen berrikuspena eta jarraipena egitea, programen jarraipena egitea, material didaktikoak diseinatzea edo egokitzea eta Berritzeguneko aholkularitzekin eta irakasleekin modu telematikoan koordinatzea. Familiekin komunikatzea ere gomendatzen da, haien inplikazioa errazteko.

### **Euskal girotze barnetegiak**

Programak berrikustea eta jarraitzea eta material didaktikoak diseinatzea edo egokitzea gomendatzen da. Ikasleekin jarduerak bertan behera utzi egin da beste abisu bat jaso arte

### **Sukarrietako ingurumen-hezkuntzako zentroa**

Programak berrikustea eta jarraitzea eta material didaktikoa diseinatzea edo egokitzea gomendatzen da. Jarduera bertan behera utzi egin da, beste abisu bat jaso arte.

### **Ingurugela**

Material didaktikoa prestatzea gomendatzen da. Material hori parte hartzen duten ikastetxeen eskura jarriko da, aurreikusitako proiektuak edo jarduerak garatzen laguntzeko.

- Ikastetxeei plataforma edo ingurune digitalen bidez emango zaie aholkularitza eta prestakuntza.



Langile guztien inplikazioa eskertuz, jakinarazten da jarraibide horiek alda daitezkeela, baldin eta Osasun Sailak, osasun-larrialdiko egoeraren bilakaeraren arabera, orain arte emandako jarraibideak aldatzen baditu.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 13an

Maite Alonso Arana  
Hezkuntzako sailburuordea



## ERANSKINA

**IKASTETXEETAKO JARDUERAK JASOTZEKO TAULA, IKASLEEN HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZE ALDERA**

<b>IKASTETXEAK:</b>	<b>KODEA:</b>
<b>IRAKASLEEN ORDUTEGIA</b>	
<b>IKASLEEN HEZKUNTZA ZUZENBIDEA BERMATZEKO ERABILTZEN ARI DIREN PROZEDURAK EDOTA MATERIALAK.</b>	
<b>IKASLE ZEIN FAMILIEKIN GARATZEN ARI DEN KOMUNIKAZIOA PROZEDURA</b>	
<b>KURRIKULUMAREN OINARRIZKO ASPEKTUAK LANTZEN DIRELA BERMATZEKO ESTRATEGIEN PLANGINTZA</b>	
<b>GORABEHERA ESANGURATSUAK</b>	
<b>OHARRAK ETA PROPOSAMENAK</b>	
2020ko .....ren.....an	
Izpta. Ikastetxeko zuzendaria	